

**LEHIAKETA-PROZESURAKO KUDEAKETA-GOMENDIOA:  
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN IZAPIDEAK BEHAR BEZALA EGITEKO  
METODOLOGIA**

- **1. ORRIALDEAN OSATU BEHARREKOA: 2022KO URRIAREN 25EKO DATA (FORU-DIPUTATUA GAITZEKO AKORDIO-DATA)**

Duela egun batzuk bidalitako Kudeaketa-Gomendioan, lehenengo paragrafoan, ez da agertzen Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuari emandako gaikuntza-akordioaren data. 2022ko urriaren 25a da, alegia.

Erantsitako dokumentuan (.RTF) behar bezala beteta badago ere, aurreko bertsioarekin lan egiten bada, data hori sartu behar da, jarraian adierazten den bezala:

“ (...) Elixabete Etxanobe Landajuela andrea, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatu, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta horren ordezkari gisa, Bizkaiko Foru Aldundiak **2022ko urriaren 25ean** adostutako Akordioaren bidez emandako gaikuntza betez eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoaren erregelamendua onartzen duen uztailaren 19ko 87/2022 Dekretuan ezarritakoaren arabera, funtzio publikoaren arloan duen eskumena betez”.

- **UDALAK GOMENDIO-HITZARMENEAN SARTU BEHARREKO DATA**

**Hitzarmenean Alkatetzaren sinadura-data egon behar da jasota.**

- **EUDELERA BIDALI BEHARREKO DOKUMENTUAK**

- 1.- Alkatetzaren Dekretua, sinatuta
- 2.- “...Bizkaiko Foru Aldundiari egindako kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmen-eredua, enplegu publikoa finkatzeko prozesuetan langileak hautatzeko kudeaketa materiala egite aldera”, **.PDF formatuan eta sinatuta.**

Hori guztia, mezu elektronikoa bakarrean.

- **EGITURA, EDUKIA, FORMATUA ETA NORA BIDALI BEHAR DEN**

**\*GARRANTZITSUA:**

- **Bidalitako kudeaketa-gomendioaren egitura eta edukia errespetatu behar dira.**
- **Dokumentua .PDF formatuan bidali behar da** (ez bidali Word eta/edo beste formatu batean)

Helbide elektronikoa honetara bidali behar da: [oinarriak@eudel.eus](mailto:oinarriak@eudel.eus)

- **MEZU ELEKTRONIKOAREN "GAIA"**

**\*GARRANTZITSUA: mezu elektronikoaren "gaian" legenda hau egon behar da jasota: udalaren izena Gomendioa Encomienda (Adibidez: Arrieta Gomendioa Encomienda)**

- **BIDALTZEKO AZKEN EGUNA**

Bidaltzeko azken eguna **azaroaren 30a** izango da. Jakinarazpen-pilatzeak saiheste aldera, igorpena ahalik eta gehien aurreratzea gomendatzen da.

- **EZ DA BEHARREZKOA UDALAK BERAK ARGITALPENA EGITEA**

Bizkaiko Foru Aldundia bera arduratuko da diputatuaren sinaduraz eta, ondoren, hitzarmena inprentara bidaltzeaz, BAOn argitaratu dadin.

- **ZALANTZAK ETA KONTSULTAK**

Zera gogorarazi nahi dizuegu: kudeaketa-gomendioari buruzko zalantzak argitze aldera, horiek helbide elektronikoa honetara helarazi ditzakezue: [oinarriak@eudel.eus](mailto:oinarriak@eudel.eus)

**Jarraibide horiek betetzeak duen garrantzia berretsi nahi dugu, izapideak behar bezala egiteko eta disfunczioak saihesteko.**

**EUDEL. 2022ko azaroaren 22a**